# Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Urteko Oroit-idatzia

# Memoria Anual del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

2007ko ekitaldia

Ejercicio 2007

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA ........................................................................................... 5

II. FISKALIZAZIO ARIBIDEA ........................................................................ 6

III. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ............................ 10

III.1 LEGEBILTZAR, BATZAR NAGUSI ETA EHU-REN GIZARTE KONTSEILUAREKIKO HARREMANAK ..................................................... 10

III.2 KANPO HARREMANAK........................................................................... 10

IV. HEPAITEGIAREN ZERBITZURA DIHARDUEN LANGILERIA ................ 12

V. GARAPEN TEKNOLOGIKOA ETA PROZEDURAK............................... 13

VI. HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN 2007-KO EKITALDIAREN URTEKO KONTUAK ..................................................... 14

- Urteko Kontuez besteko Auditoretza Txostena ........................................ 15
- 2007eko ekitaldiaren urteko kontuak ....................................................... 16
- Egoeraren Balantzea eta Galdu Irabazien Kontua...................................... 18
- Ibilgetua, Aurrekontu Plantilla.................................................................. 20
- Aurrekontu Aldaketak, Urteko Kontuei Oharrak ...................................... 21

VII. KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA 2007-KO URTEA ........... 21

VII.1 ORDUEN BILAKAERA............................................................................ 21

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. INTRODUCCIÓN .......... 25

II. ACTIVIDAD DE FISCALIZACIÓN .......... 26

II.1 PLAN DE TRABAJO .......... 26

III. RELACIONES CON OTRAS INSTITUCIONES .......... 30

III.1 RELACIONES CON EL PARLAMENTO VASCO, JUNTAS GENERALES Y CONSEJO SOCIAL DE LA UPV .......... 30

III.2 RELACIONES EXTERNAS .......... 30

IV. PERSONAL AL SERVICIO DEL TVCP .......... 32

V. DESARROLLO TECNOLÓGICO Y PROCEDIMIENTOS .......... 33

VI. CUENTAS ANUALES DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS DEL EJERCICIO 2007 .......... 34

- Informe de auditoria independiente de las cuentas anuales .......... 35
- Liquidación del presupuesto 2007 .......... 36
- Balance de Situación y Cuenta de Pérdidas y Ganancias .......... 38
- Inmovilizado, Plantilla Presupuestaria .......... 40
- Modificaciones presupuestarias, Notas a las Cuentas Anuales .......... 40

VII. INFORMACIÓN DE GESTIÓN AÑO 2007 .......... 41

VII.1 EVOLUCIÓN HORAS .......... 41

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 15a
Vitoria-Gasteiz, 15 de julio de 2008

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# I. SARRERA

Euskal Herriko Ogasun Orokorraren Printzipio Arautzaileen Legeak agintzen du Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduera ekonomikoa kontrolatuko duela, Autonomia Erkidegoaren Erakunde Komunen eta bere Lurralde Historikoetako Foru Organoen Harremanen Legea izanik horren oinarrizko eraketa zehazten duena; honela, bada, Eusko Legebiltzarraren Legea izango da sortu eta arautuko duena bere egitekoen osaera, antolamendua eta prozedura fiskalizatzaile eta jurisdikzionala.

Premisa hauek abiaburu hartuta, otsailaren 5eko 1/1988 Legeak Herri-Kontuen Euskal Epaitegia sortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko atal modura, zuzenean Eusko Legebiltzarraren baitako dena. Eskumenen esparruan euskal sektore publikoaren ekonomia-finantza eta kontularitzako aribideen organo fiskalizatzaile goren izaera du eta Autonomia Erkidegoan gauzatzen ditu egitekoak, Eusko Legebiltzarrak eskuordetuta

Epaitegia Legebiltzarraren Osokoak hautatutako zazpi kidek osatzen dute, bertako kideen erabateko gehiengoaren aldeko botoarekin; Epaitegiaren egitura honako atal hauek osatzen dute:

- Lehendakaritzak
- Lehendakariordetzak
- Osokoak
- Idazkaritza Nagusiak

Epaitegiaren kontrol esparru eta zabalak euskal sektore publikoa osatzen duten Erakunde guztiak besarkatzen ditu, hau da:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra.
- EAEren Erakunde Autonomo, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko eta Sozietate Publikoen kontuak.
- Lurralde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusi eta Foru Aldundiak eta horien meneko Erakundeen Enteak eta Sozietate Publikoak.
- Horien meneko diren Erakundeen Enteak eta Sozietate Publikoak.
- Aurrez zerrendatutako enteetatik eratorritako diru edo baliabide publikoak administratu edo erabiltzen dituen bestelako zeinahi erakunde.

Halaber, Epaitegiaren kontrola ere laguntza ekonomikoak eskuratzen dituen bestelako zeinahi pertsona fisiko zein juridikoren aribidera heda daiteke, hala nola, dirulaguntzak, kredituak, abalak eta bestelako bermeak; baita, Euskal Sektore Publikoak eman diezazkion salbuespen eta hobari fiskal zuzen eta pertsonalak ere. Kontrolak laguntzei erabilera eta norako egokia ematen zaiela egiaztatuko du.

## ANTOLAMENDUA

Epaitegia bere aribidea garatzeko fiskalizazio alorretan dago banatua. 2002ko ekitaldian zehar eta Epaitegiaren kideek berritu izanaren ondorioz, Osokoak lan esparruen zatiketa berria onetsi zuen; baita, Kontseilari bakoitzak esparru bakoitzaren gainean zuen erantzukizuna ere; hona hemen alorren araberako zati-banaketa:

- Lehendakaritza Fiskalizazio ez errepikariak, programatu gabeak eta erakundeartekoak.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa Orokorra, Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
- Erakundeen atala: Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakundeen Administrazioa.
- Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
  - 20.000 biztanletik gorako udalak eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa.
  - 20.000 biztanletik beherako udalak, Mankomunitateak eta Txosten Diagnostiko Orokorra.

Banaketa honen helburua lanak sektore homogeneoen arabera egitea da, erakundeen izaera abiaburu hartuta; baita, lan bolumena aintzat hartuta, auditoretza taldeak egoki izendatzea ere.

2007ko apirilaren 27an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakari zen Mª Asunción Macho Berroya andrea zendu zen. Otsailaren 5eko 1/1988 legearen 19.1a) eta 20.2a) artikuluari jarraiki, Jesús alvarez Galdos lehendakariordeak hartu du Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren lehendakaritza.

2007ko abenduan, Eusko Legebiltzarrak Eusebio Melero Beaskoetxea jauna izendatu zuen Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren kide.

## II. FISKALIZATZEKO ARIBIDEA

Epaitegiaren Legearen 9. artikuluari jarraiki, egiteko fiskalizatzaileak helburu du euskal sektore publikoa osatzen duten Erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioa antolamendu juridikoari egokitzen zaiola egiaztatzea. Fiskalizazioak, orobat, dirulaguntzen helburua bete den egiaztatuko du.

Erakundeek igorritako Kontu Orokorrak abiaburu hartuta, txostenak oniriztzen dira, izaera orokorrarekin honako hauei dagozkienak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuei buruzko txostena.
- Hiru Lurralde Historikoen Kontu Orokorren txostenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Entitateen Kontuei buruzko txosten orokorra.

Honez gain, berariazko txostenak hezurmamitzen dira, egiteko fiskalizatzailea gainerako euskal sektore publikora hedatzearren; hauek, Epaitegiaren beraren ekimenez egiten dira, edota, Eusko Legebiltzarrak edo Lurralde Historikoen Batzar Nagusiek eskatuta.

## II.1 LANERAKO PLANA

Lanerako Plana hezurmamitu aurretik, HKEEk planean barne hartzeko diren lehentasunezko eskabideak jaso eta aztertu ditu, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak eta Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietako dagozkien batzordeek eskatutakoak.

Epaitegiaren Osokoak 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran 2007ko aldirako Lanerako Plana onetsi zuen. Planak abian dauden eta aurreko planei dagozkien onesteko dauden jarduerak besarkatzen ditu.

### Lehendakaritza:

- Euskadiko Erkidegoko Estatutu Politiko Berriaren Proposamenaren gastuen fiskalizazioa (Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta txertatu zitzaion Lanerako planari) (07/04/18ko Osoko bilkura)
- Euskadi Fundazioari laguntzak, 2004-2005 (07/07/26ko Osoko bilkura).
- 2003-2005eko Itunpeko Zerga kontzeptuan aurrekontuaren gaineko desbideraketen arrazoiak. Arrazoien eta horiek gastuak finantzatzeko erabiltzearen zuzentasuna. (08/03/14ko Osoko bilkura).
- Guggenheim. HKEEk mamitutako azken txostenaz geroztik gauzatutako arte erosketen legezkotasunaren analisia. Guggenheim Fundazioaren jardueraren fiskalizazioa, 2005 (07/06/14ko Osoko bilkura).
- Oihanberri SA, Sozietate Publikoa, 2004-2005. (Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta txertatu zitzaion Lanerako planari) (07/12/14ko Osoko bilkura)
- Batzar Nagusietarako hauteskundeak, 2007 (07/12/14ko Osoko bilkura)
- 2000-2006 aldirako onetsitako erakundearteko Jarduera Planak: seme´-alabak dituzten familiei laguntzak.
- 2000-2006 aldirako onetsitako politika eta erakunde mailako jarduera planak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana eta Lanbide Prestakuntzarako Euskal Plana (2004-2007)

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

## Lehendakariordetza:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren 2005eko Administrazio Orokorraren likidazioaren fiskalizazioa (07/09/27ko Osoko bilkura).
- Euskadiko Erkidegoko Estatutu Politiko Berriaren Proposamenaren gastuen fiskalizazioa. (07/03/09ko Osoko bilkura).
- Alokairuko etxebizitzen Bizigune programa: Legezkotasun, publizitate eta sarbide baldintzen analisia, 2005. (08/03/14ko Osoko bilkura).
- Euskal Herriko Plan Sozio-Sanitarioa, ekonomia-finantzazko balorazioa, Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta.

## Autonomia Erkidegoaren Erakundeena:

- EAEren Erakundeen Administrazioaren Kontuaren Fiskalizazioa, 2004, sozietate publikoak, enteak eta erakunde autonomoak biltzen dituena (07/09/27ko Osoko bilkura).
- EAEren Erakundeen Administrazioaren Kontuaren fiskalizazioa, 2005 (08/03/14ko Osoko bilkuran behin-behinean onetsia).
- Partaidetza publikoa > % 50etik gorakoa duten sozietateak, 2000 eta 2006 arteko aldian sortutakoak.
- Administrazio publikoen nagusitza duten Fundazioen fiskalizazioa.

## Araba eta Bizkaiko Foru Adminsitrazioa

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2005eko ekitaldikoa. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2005eko ekitaldikoa (07/09/27ko Osoko bilkura).
- Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2005eko ekitaldikoa. Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2005eko ekitaldikoa (07/11/08ko Osoko bilkura).
- Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien 2004ko kitatutako aurrekontuen eta horien kontsolidatuaren banaketa funtzionalari buruzko agiri informatiboa. (07/12/14ko Osoko bilkura).
- Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2006ko ekitaldikoa. Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2006ko ekitaldikoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2006ko ekitaldikoa, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2006ko ekitaldikoa.

- Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurralde Historikoetako Foru Sektore Publikoaren aurrekontu-likidazio eta finantza egoeren azterketa konparatiboa, 2005 (08/05/06ko Osoko bilkura).

## Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2005. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2005eko ekitaldia (07/04/23ko Osoko bilkura).
- Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005. (07/11/08ko Osoko bilkura).
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2006. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2005eko ekitaldikoa (08/03/14an alegazioetarako behin-behineko onespena).

## Toki Administrazioa, 20.000 biztanletik gorako biztanleria duten udalak

- Lurraren Udal Ondarea (Kontuen Epaitegiarekin lankidetzan mamitutako zeharkako lana).
- Donostiako Udalaren Fiskalizazioa, 2005, bere sozietate eta erakunde autonomoak barne hartuta. Donostiako Udalak izenpetutako Hirigintzako Hitzarmenak, 2005eko ekitaldian eragina izan dutenak (07/06/14ko Osoko bilkura).
- Santurtziko Udala eta meneko dituen sozietateak, 2005. (07/11/08ko Osokoa)
- Vitoria-Gasteizko Udala: Finantza eta legezkotasunaren fiskalizazioa. (Behin-behinean 08/05/06ko Osoko bilkuran onetsia).
- Eibarko Udala eta meneko dituen sozietateak, 2005. (Behin-behinean 08/05/06ko Osoko bilkuran onetsia).

## 20.000 biztanletik beherako biztanleria duten udalak:

- Lasarte-Oriako Udalaren Fiskalizazio txostena, 2004 (07/02/23ko Osoko bilkura).
- Etxebarriko Udalaren eta Etxebarriko Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoaren fiskalizazio txostena, 2004. (07/02/23ko Osoko bilkura).
- EAEren Toki Entitateen Kontuei buruzko Txostena, 2004 (07/02/23ko Osoko bilkura).
- Ormaiztegiko Udalaren eta meneko dituen sozietateen fiskalizazioa, 2005. (07/06/14ko Osoko bilkura)
- Lemoako Udalaren Fiskalizazioa, 2004. (07/12/14ko Osoko bilkura)
- Gatikako Udalaren eta meneko dituen sozietateen fiskalizazioa, 2005. (08/03/14ko Osoko bilkura)
- Sopuertako Udalaren Fiskalizazioa, 2005. (08/05/06ko Osoko bilkura)

- Iruña Okako Uren Urkidetzaren Fiskalizazioa, 2005. (08/05/06ko Osoko bilkuran behin-behinean onetsia).
- Euskal Autonomia Erkidegoaren 2005eko ekitaldiko Toki Entitateen Diagnostikoa.
- Pasaiako Udalaren eta meneko dituen sozietateen fiskalizazioa, 2005.
- Zaldibiako Udalaren eta meneko dituen sozietateen fiskalizazioa, 2005.
- Tolosako Udalaren Fiskalizazioa, 2005

## III. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

### III.1 LEGEBILTZAR, BATZAR NAGUSI ETA EHU-REN GIZARTE KONTSEILUAREKIKO HARREMANAK

Epaitegiak garatzen duen egiteko fiskalizatzailearen ondorioz, azaleratutako legezko zein kontularitzako lege hausteak eta/edo okerreko aribideak jasotzen dituen txostena mamitzen du; halaber, fiskalizaziogai diren erakundeen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa hobetzeko ezarri beharreko neurri zuzentzaileak ematen ditu.

Txostenak Eusko Legebiltzarrari, Batzar Nagusiei, fiskalizaziogai izan diren Erakundeei eta Gobernuari, Foru Aldundi eta Udalei igortzen zaizkie.

Lehendakaria Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen aurrean aurkeztu da 2007ko martxoan eta azaroan, egindako txostenak azaltzeko. Honez gainera, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren aurrean agerraldia egin du.

### III.2 KANPO HARREMANAK

#### Kanpo Kontrolerako Organoak

1995az geroztik hainbat lankidetza hitzarmen izenpetu dira Kanpo Kontrolerako Organoekin (KKO/OCEX) eta horien bitartez guztien arteko harremanak finkatzen dira eta prestakuntza eta hedapen egitekoak zehazten. Horretarako, jarraipen batzorde bat sortu zen, prestakuntza planak onesten dituena.

Halaber, merezi du Auditoretza Publikoa aldizkariaren argitarapen bateratua azpimarratzea, urtez urte sendotzen ari dena, KKOen arteko lotura eta hedapen gune dena.

KKOen arteko harreman hauetan, Lehendakariek hainbat bilera egiten dituzte urtean zehar guztien intereseko gaiak aztertzeko. KKOen Lehendakarien Biltzarra Valladolid, Bartzelona eta Gasteizen elkartu da 2007ko martxo, apiril eta azaroan.

Berebat, Kontuen Epaitegiaren toki alorraren Koordinazio batzordeak eta KKOek hainbat bilera egin dituzte eta horietan HKEEren toki entitateetako kontseilariek esku hartu dute.

HKEEk Kanpo Kontrolerako Organoen II. Teknologia Foroan esku hartu du, 2007ko irailean Iruñean egin zenean; bertan, teknologia berrien esparruan izan duen bilakaera agertu eta organo hauek inguru informatikoen fiskalizazioarekiko duten etorkizunaz aritu da.

## Kontuen Epaitegia

Epaitegiak onesten dituen txosten guztiak Kontuen Epaitegiari igortzen zaizkio, eta aldi berean honek Autonomia Erkidego, Toki Erakunde eta Unibertsitate Publikoen multzoari dagokionez Gorte Nagusietan aurkezten dituenetan barne hartzen dira.

Gainera, Kontuen Epaitegiak kontularitzako erantzukizuna auzirateko eskumena du eta aukera du aldez aurreko instrukzio atala autonomia erkidegoetako kanpo kontrolerako organoetan eskuordetzeko.

Eskuordez, Kontuen Epaitegiak abian jarritako ondoko espedienteen aldez aurreko instrukzioa egiten jarraitu du:

- Aldez aurreko jarduketak 54/07 zk., EAEren Administrazio Orokorraren Kontu Orokorra, 2004 Instrukzioa 2008ko urtarrilaren 29ko Autoa artxibatuta amaitu zen, alkantzeagatiko kontularitzako erantzukizunik ez zegoelako.
- Aldez aurreko jarduketak 150/07 zk., Bizkaiko Lurralde Historikoa, Administrazio Orokorraren Kontu Orokorra, 2004. Izapidea 2008ko urtarrilaren 17an eskuordetu zitzaion Epaitegiari eta abian da.
- Aldez aurreko jarduketak 112/97, Bilboko Udalaren Kontua, 2004. Izapidea Epaitegiari eskuordetua dago eta abian da.
- Aldez aurreko jarduketak 113/07, Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra, 2004. Izapidea Epaitegiari eskuordetua dago eta abian da.
- Aldez aurreko jarduketak 53/07Q, Zaratamoko Udala. Izapidea Epaitegiari eskuordetua dago eta abian da.
- Aldez aurreko jarduketak 123/07, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra, 2004. Izapidea Epaitegiari eskuordetua dago eta abian da.
- Aldez aurreko jarduketak 124/07, Berrizko Udala 2002-2004. Izapidea Epaitegiari eskuordetua dago eta abian da.

Horiezaz gainera, Kontuen Epaitegiak 2007an honako aldez aurreko jarduketa hauek ireki ditu: 151/07 zk., Eitb Taldea, 1999-2003 eta 149/07 zk., BEC 2001-2005, zeinaren izapidearen eskuordetza ez duen Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak onetsi.

## Nazioarteko harremanak

Aipatzekoa da Europako Kontuen Epaitegiarekin mantentzen diren harreman bideak; honela, bada, 2007ko urrian Euroraik Crans-Montanan (Valais-Suitza) antolatutako VI. Kongresuan

esku hartu zuen, auditoria zerbitzu publikoak finantzatu eta eskuordetzeko molde berrien aurrean gaiari buruzkoa.

## Komunikabideekiko harremanak

Gure txostenak behin onartu eta fiskalizatutako erakundeetara igorri ondoren, web orrian argitaratzen ditugu, honako helbide honetan: www.tvcp.org.

Halaber, eta komunikabideekiko harremanak indartzeko, onartutako eta fiskalizatutako erakundeei igorritako txostenak, Epaitegiaren dagokion prentsa ohar laburtuarekin batera komunikabide guztiei igortzen zaie posta elektroniko bitartez.

Web orriari dagokionez, orrialde berria abiarazi dugu, irisgarritasun handiagoa eta hiritarrek HKEE erraztasun handiagoz ezagutzea bideratzen duena. 1997ra arteko txostenak oso-osorik txertatu zaizkio (web orria ireki berritan, txosten zaharrak Agintaritza aldizkarietan argitaratutako txostenarekin barne hartu ziren). Datozen ekitaldietan, ekitaldi hori baino lehenagoko gainerako txostenak ordezkatzen joango dira.

# IV. EPAITEGIAREN ZERBITZURA DIHARDUEN LANGILERIA

Epaitegiaren zerbitzura dihardduen langile kopurua 2007ko urte amaieran 84 pertsonakoa izan da, honako maila hauetan zati-banatuak:

| | |
|---|---|
| Goi kargudunak............................................. | 8 |
| Behin-behineko langileak............................... | 10 |
| Auditoreak.................................................... | 37 |
| Letratuak ..................................................... | 7 |
| Administrazioko langileria.............................. | 22(*) |

(*) Bitarteko funtzionario bitartez egindako gaixotasun luzeko bajen 3 ordezkapen barne hartzen ditu.

2007ko urtean zehar, Epaitegiak langileriaren prestakuntzarako guztira 981 ordu erabili ditu kanpo erakundeek antolatutako ikastaroetan, hizkuntzen ikaskuntzarako orduak kontatu gabe.

Ikastaroen berariazko aztergaiak honako hauek izan dira: alderdi ekonomiko, kontularitzako eta aurrekontuzkoak, kontratazioa, ogasun publikoa, politika komunitarioak eta aplikazio informatikoak.

Prestakuntzan erabilitako guztizko aurrekontua 57.088 eurokoa izan zen; honek 2007ko urtealdian, "Ondasun erosketa eta zerbitzuak" gastuen 2. kapituluan egindako gastu guztien gainean % 6,3 egin du.

2007ko urtean zehar, derrigorrezko hizkuntza eskakizunak eskuratzera emandako orduak 2.679 izan dira.

## V. GARAPEN TEKNOLOGIKOA ETA PROZEDURAK

HKEEk 2007ko ekitaldian zehar ezarritako auditoriako baliabide informatikoen erabilera finkatu du, gaur egun errealitate bihurtu delarik ”paperik gabeko auditoria-lana”.

Eskualdaketen atalean lanabesa Citrix-ekin ordezkatu da, eskualdaketak arintzen dituena, langileei egoitzaz kanpo lan egiten dutenean baliabide horiek erabiltzeko bide emanez.

Segurtasun-agiria garatu eta ezartzean USB giltzak erabiltzen dituen programa bitartez ordenagailu eramangarriak enkriptatu dira. Era honetara, ekipo bat galdu edota lapurtzen badute, disko gogorra formateatuta soilik erabili ahal izango da, eta honela, ordenagailuetan jasotako informazioaren segurtasuna bermatzen da.

Jokamolde honek lan egiteko moduan eragin dituen aldaketez baliatuz, fiskalizazio prozedurak berrikusi dira, “Fiskalizazio Prozeduren Eskuliburua” onetsi delarik. 2007ko urtarrilean argia ikusi zuen eskuliburu honek, lanerako programa estandarrak barne hartzen ditu eta auditoria publikoarekin zerikusirik duten pertsona eta entitateekin lotutako pertsonentzat lanabes erabilgarri bihurtu da.

Teknologiako inbertsioei dagokienez, 10 ekipo finko eta 10 eramangarri erosi dira; halaber, zerbitzari bat ordezkatu da.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# VI. HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN 2007-KO EKITALDIAREN URTEKO KONTUAK

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Z & B Auditores, Consultores
de Entidades Públicas

## - INFORME DE AUDITORIA INDEPENDIENTE DE LAS CUENTAS ANUALES -

**Al Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas - Herri-Kontuen Euskal Epaitegia:**

1. Hemos auditado las cuentas anuales del TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS - HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA, que comprenden el balance de situación al 31 de diciembre de 2007, la cuenta de resultados, liquidación presupuestaria del ejercicio, resultado del ejercicio económico, liquidación de presupuestos cerrados, operaciones extrapresupuestarias, cuenta de tesorería y notas explicativas correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, cuya formulación es responsabilidad de la Secretaría General del Tribunal. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las citadas cuentas anuales en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de las cuentas anuales y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. La Secretaría General presenta, a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance y de la cuenta de resultados, además de las cifras del ejercicio 2007, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a las cuentas anuales del ejercicio 2007. Con fecha 11 de abril de 2007 emitimos nuestro informe de auditoría acerca de las cuentas anuales del ejercicio 2006, en el que expresamos una opinión sin salvedades.

3. En nuestra opinión, las cuentas anuales del ejercicio 2007 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera del TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS - HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA al 31 de diciembre de 2007 y de los resultados de sus operaciones y de los ingresos y gastos de la liquidación del presupuesto correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha y contienen la información necesaria y suficiente para su interpretación y comprensión adecuada, de conformidad con principios y normas contables establecidos por el Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

**Z & B Auditores, Consultores de Entidades Públicas, S.L.**
**Sociedad inscrita en el ROAC con el nº S-1354**

Fdo.: Pedro Odriozola Zubia

Vitoria-Gasteiz, a 22 de abril de 2008

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA/TVCP
# 2007-KO EKITALDIAREN URTEKO KONTUAK

**1.** 2007-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA — Mila euro

| SARRERAK | Aurrekontua Hasier. | Aldat. | B.-bet. | Eskubide Kitat. | kobr. | Kobr. gabe | Exek. % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4.- Transf. eta dirul. arruntak ........ | 6.423 | | 6.423 | 6.423 | 6.423 | 0 | 100 |
| 5.- Ondare sarrerak...................... | 22 | | 22 | 105 | 46 | 59 | 477 |
| 7.- Kapital dirulag. eta transf. ....... | 199 | | 199 | 199 | 199 | 0 | 100 |
| 8.- Finantza aktiboen aldak.......... | 226 | | 226 | 33 | 33 | 0 | 14,6 |
| **Guztira** | **6.871** | | **6.871** | **6.760** | **6.701** | **59** | **98,4** |

| GASTUAK | Aurrekontua Hasier. | Aldat. | B.-bet. | Oblig. aitort. | Ordaink. | Ordain. gabe | Exek. % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.- Langile gastuak ...................... | 5.516 | + / -24 | 5.516 | 5.273 | 5.273 | 0 | 95 |
| 2.- Ondasun erosketa eta zerbitz... | 1.138 | | 1.138 | 907 | 843 | 64 | 80 |
| 4.- Transf. eta diru-lag. arruntak ... | 9 | | 9 | 0 | 0 | _ | 0 |
| 6.- Inbertsio errealak.................... | 159 | | 159 | 71 | 40 | 31 | 45 |
| 8.- Finantza aktib. aldak............... | 49 | | 49 | 49 | 49 | _ | 100 |
| **Guztira** | **6.871** | **+ / - 24** | **6.871** | **6.300** | **6.205** | **95** | **91,7** |

**2.** AURREKONTU ITXIAK — Mila euro

| | Hasier. | Baliog. | Diruz. | Azkena |
|---|---|---|---|---|
| Sarrera itxiak...................................... | 33 | _ | 33 | _ |
| Gastu itxiak......................................... | 82 | _ | 82 | _ |

| 3. AURREKONTUAREN EMAITZA | Mila euro |
|---|---|
| Eskubide kitatuak | 6.760 |
| Obligazio onartuak | (6.300) |
| Sarrera itxien baliogabetzea | - |
| **Aurrekontuaren emaitza** | **460** |

| 4. DIRUZAINTZA GELDIKINA ALDAKETA | Mila euro |
|---|---|
| Diruzaintza geldikina 06.12.31n | 1.536 |
| *+ Aurrekontuaren emaitza | 460 |
| **Diruzaintza geldikina 07.12.31n** | **1.996** |

| 5. DIRUZAINTZAKO GELDIKINA | Mila euro |
|---|---|
| Diruzaintza | 2.420 |
| Aurrekontuaren zordunak | 59 |
| Aurrekontuaren hartzekodunak | (95) |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak | (2) |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak | (386) |
| **Diruzaintza geldikina 07.12.31n** | **1.996** |
| Inbertsioei lotutako DG | 383 |
| Erabilera orokorreko DG | 1.613 |

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

## 6. EGOERAREN BALANTZEA 2007ko abenduaren 31n

Mila euro

| AKTIBOA | aben. 07 | aben. 06 | PASIBOA | aben. 07 | aben. 06 |
|---|---|---|---|---|---|
| **IBILGETU MATER. ETA EZMAT.** | **2.715** | **2.869** | **BEREZKO FONDOAK** | **4.395** | **4.201** |
| Makineria, instalakun. eta tresneria | 3118 | 3.118 | Ondarea | 4201 | 4.024 |
| Abian dauden instalak. | 0 | 0 | ekitaldiaren aurrek. emaitza | 194 | 177 |
| Garraiogaiak | 166 | 166 | | | |
| Higigarriak | 363 | 363 | | | |
| Bulegogaiak | 62 | 62 | GERORATUTAKO SARRERAK | | |
| Informatika ekipoak | 405 | 400 | Kapitalezko transferentziak | 383 | 255 |
| Ibilgetu ezmateriala | 16 | 16 | | | |
| - Metatutako amortizazioa | (1.415) | (1.256) | | | |
| **ZORDUNAK** | **124** | **83** | **HARTZEKODUNAK** | **481** | **449** |
| Aurrekontu arrunta | 59 | 33 | Aurrekontu arrunta | 95 | 81 |
| Aurrekontu itxiak | 0 | 0 | Aurrekontu itxiak | 0 | 1 |
| Aurrekontuz kanpokoak | (2) | (2) | ENT.PUB. hartzekodunak | 382 | 363 |
| Maileguek erag. zordunak | 67 | 52 | Ez aurrekontukoak | 4 | 4 |
| DIRUZAINTZA | | | | | |
| Bankuak | 2.420 | 1.953 | | | |
| Aktiboa | 5.259 | 4.905 | Pasiboa | 5.259 | 4.905 |

## 7. 2007ko ekitaldiaren GALDU-IRABAZIEN KONTUA

Mila euro

| GASTUAK | 07 urtea | 06 urtea | DIRU-SARRERAK: | 07 urtea | 06 urtea |
|---|---|---|---|---|---|
| Langile gastuak.................. | 5.273 | 4.976 | EAEren transf. arruntak.............. | 6.423 | 6.162 |
| Errentamenduak ................ | 194 | 186 | EAEren kapit. transf. (doiketa)..... | 71 | 111 |
| Konponketak eta zaintza ... | 47 | 49 | Interesak.................................... | 105 | 62 |
| Zerb. profes. askeak........... | 31 | 58 | Diruzaintza geldikina ................. | 0 | 0 |
| Aseguru sariak.................. | 30 | 26 | | | |
| Harream publikoak eta protok. | 47 | 19 | | | |
| Hornidurak ........................ | 35 | 36 | | | |
| Bulegoko materiala............ | 43 | 25 | | | |
| Liburuak eta argitalp.......... | 27 | 26 | | | |
| Garbiketa eta txukuntasuna | 141 | 135 | | | |
| Segurtasuna ...................... | 1 | 1 | | | |
| Garraioa eta egoitza gastuak | 113 | 123 | | | |
| Komunikazioak................. | 71 | 66 | | | |
| Informatika-materiala ........ | 37 | 41 | | | |
| Auditoria Publikoa aldizkaria | 5 | 5 | | | |
| Bilerak, hitzald. eta ikast. ... | 57 | 78 | | | |
| Beste admin. batzuei zerb.. | 0 | 0 | | | |
| Artxibo zerbitzuak ............ | 0 | 0 | | | |
| Bestelako zerbitzuak .......... | 25 | 21 | | | |
| Tributuak.......................... | 3 | 4 | | | |
| Irabazi asmo. gabe Erak. transf. | 0 | 1 | | | |
| Amortizazioari egindako zuzk. | 197 | 204 | | | |
| Aurr. ekit. kapit. transf. (irizpidea) | 0 | 0 | | | |
| Ekit. Itxiet. sarreren baliogab. | 0 | 1 | | | |
| Ibilg. bestereng. galerak .... | 28 | 77 | | | |
| Maileguen erregularizazioa | 0 | 0 | | | |
| **Gastuak** | **6.405** | **6.158** | **Diru-sarrerak** | **6.599** | **6.335** |
| | | | **Ondare emaitza** | **194** | **177** |

8. IBILGETUA | Mila euro

| | ___06 abendua___ | | | ___Urtea___ | | | ___07 abendua___ | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gordina | Amort. | Garbia | Berria | Bajak | Amort. | Gordina | Amort. | Garbia |
| Instalakuntzak ...................... | 3.118 | (416) | 2.702 | 0 | 0 | 156 | 3.118 | 572 | 2.546 |
| Garraio elementuak ............. | 166 | (166) | 0 | 0 | 0 | 0 | 165 | 165 | 0 |
| Higigarriak........................... | 363 | (284) | 79 | 0 | 0 | 12 | 362 | 296 | 66 |
| Bulegogaiak ......................... | 62 | (60) | 2 | 0 | 0 | 0 | 62 | 60 | 2 |
| Informatika ekipoak............. | 400 | (314) | 8 | 43 | (38) | 29 | 404 | 304 | 100 |
| Ibilgetu ezmateriala ............. | 16 | (16) | 0 | 28 | (28) | 0 | 16 | 16 | 0 |
| **GUZTIRA** | **4.125** | **(1.256)** | **2.869** | **71** | **(66)** | **197** | **4.129** | **1.414** | **2.715** |

9. AURREKONTU PLANTILA | Pertsonak

| | ___06 abendua___ | | __Aldaketa__ | | ___07 abendua___ | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zuzkidura | Egiazkoa | | | Zuzkidura | Egiazkoa |
| Goi kargudunak ........................... | 8 | 8 | - | - | 8 | 8 |
| Auditoretzako aholkulariak........... | 8 | 8 | - | - | 8 | 8 |
| Lehendakariaren idazkaria ............ | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| Lehendakariordearen idazkaria ...... | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| Auditoreak................................... | 14 | 14 | - | - | 14 | 13 |
| Auditore atxikituak....................... | 24 | 24 | - | | 28(*) | 24 |
| Letratuak .................................... | 7 | 7 | | | 9(**) | 7 |
| Informatika tekn. ......................... | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| Kontab. eta zerb. orok. teknik. ...... | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| Itzultzailea................................... | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| Inform. lag. eta inform. kudeatz. ... | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| Admin. Kudeak. arduraduna ......... | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| Administrariak.............................. | 9 | 9 | - | - | 9 | 12(***) |
| Administrari laguntzailea .............. | 2 | 0 | - | - | 0 | 0 |
| Adm. lag.-telefonaria ................... | 2 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| Gidaria-Menpekoa ....................... | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| Gidaria......................................... | 1 | 1 | - | - | 1 | 2(***) |
| Ordenantza-Menpekoa ................ | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 |
| | 84 | 81 | | | 87 | 84 |

(*) 4 plaza sortzeko
(**) 2 plaza sortzeko
(***) Bitarteko funtzionario bitartez egindako gaixotasun-bajen ordezkapenak

**10. AURREKONTUAREN ALDAKETAK** | **Mila euro**

2007ko ekitaldian 24 mila euroko aurrekontu aldaketak gauzatu dira, lan kontratupeko langileen ordainsariei aurre egiteko.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

11. URTEKO KONTUEI EGINDAKO OHARRAK

- Herri-Kontuen Euskal Epaitegia Eusko Legebiltzarraren 1/88 Legeak arautzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoan sektore publikoaren jarduera fiskalizatzen duen jardute-atal gorena da.
- HKEEk Euskadiko Aurrekontu Araubidearen 31/83 Legeak EAEren jardute-ataletarako ezartzen dituen kontabilitate prozedurak erabili ohi ditu.
- HKEEk 2001ean jasotako kapitalezko transferentziak Kontularitzako Plan Orokor Publikoan egozteko kontularitzako irizpidea aldatu du, sarrera modura erregistratuaz finantzatzen duten inbertsioa gauzatzen denean.

# VII. KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2007-KO URTEA

## VII.1 ORDUEN BILAKAERA

HKEEren zerbitzura diharduen langileriaren lanorduen norakoa honako hau izan da:

Ordu kop.

| ORDUEN GARAPENA | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fiskalizazio proiektuak | 41.068 | 37.795 | 49.459 | 46.286 | 46.540 | 47.606 | 51.020 | 7,2 |
| Informatika | (2) | (2) | (2) | (2) | (2) | 3.131 | 1.844 | (41,1) |
| Zerbitzu Orokorrak | 29.355 | 24.409 | 18.973 | 19.930 | 19.024 | 22.958 | 22.836 | (0,5) |
| Fiskalizazio proiektuei ezargar. ez zaizkien orduak | 3.641 | 6.001 | 3.164 | 4.456 | 5.822 | 2.630 | 3.393 | 29,0 |
| Bidaiak | 3.275 | 3.815 | 3.897 | 4.024 | 3.595 | 6.245 | 4.898 | (21,6) |
| Euskara | 3.235 | 5.141 | 4.733 | 4.103 | 3.416 | 2.266 | 2.679 | 18,0 |
| Prestakuntza | 699 | 1.118 | 1.732 | 1.306 | 1.112 | 1.345 | 981 | (27,0) |
| Baja | 2.110 | 4.128 | 6.910 | 7.637 | 7.459 | 10.000 | 9.156 | (8,4) |
| Beste zenbait | 6.625 | 3.648 | 1.822 | 2.155 | 1.857 | 1.300 | 1.990 | 53,0 |
| Ordaindutako baimenak | **(1)** | **(1)** | 1.313 | 1.441 | 2.146 | 2.091 | 2.423 | 15,9 |
| **GUZTIRA** | **90.008** | **86.055** | **92.003** | **91.338** | **90.971** | **99.575** | **101.220** | **1,7** |

**(1)** Aurreko ekitaldietan "Askotarikoak" idazpuruan barne hartutako datuak.
**(2)** Aurreko ekitaldietan "Zerbitzu Orokorrak" idazpuruan barne hartutako datuak.

Proiektuetan emandako ordu kopuruak, lan egindako ordu guztien % 50 egiten duenak, % 7,2 egin du gora aurreko ekitaldiarekiko.

Zerbitzu orokorretan jasotako orduek fiskalizazioari ezargarriak zaizkion egitekoak zuzenean egiten ez dituen langileriaren orduak barne hartzen dituzte (administrari laguntzaileak, administrariak, itzulpena, kontabilitatea, informatikariak, ordenantza eta gidariak), zeinetatik atal garrantzitsu bat fiskalizazio proiektuen garapenean gauzatzen diren administrazioko egitekoei baitagokie, hala nola, txostenen itzulpena, formatua ematea, artxiboak eta fiskalizaziogai diren erakundeekiko gutuneria.

Egindako bidai orduak ekitaldi bakoitzean fiskalizazioa programatu den entitatearen kokalekuaren araberakoa da, aurreko ekitaldian egindakoekiko % 21,5 murriztu dela.

Fiskalizazio proiektuei ezargarriak ez zaizkien orduak, lanak, analisiak eta azterlanak, txosten juridikoak e.a. egiten emandako orduak dira, urteroko lan programan jasotako fiskalizazio proiektu jakin bati ez dagozkionak. Aurreko ekitaldian egindako orduekiko % 29 gehitu dira.

Bajako orduak Lanerako Ezintasun egoerei eta amatasun baimenetarako lizentziei dagozkie. Ordu guzti hauetatik, 5.680 ordu administrazio egitekoak dituen langileriari dagozkio. Lau langilek 1.000 ordutik gorako baja aldia izan dute 2007an.

Ordaindutako baimenetara emandako orduak % 2,5 murriztu dira aurreko ekitaldiarekiko eta nagusiki, mediku kontsultetara joateko baimenei eta Lan Baldintzak Arautzen dituen Erabakiaren ondorioz emandako orduei dagozkie. Ordaindutako baimenetara emandako ordu kopuru guztitik, 1.205 ordu administrazioko egitekoetan diharduen langileriari dagozkio.

Hona hemen txosten errepikarietan egindako orduen bilakaera, gogoan hartuta 2000-2005eko ekitaldietako kontuei dagozkien txostenen egiazko orduak eta 2006ko ekitaldirako aurrekontu egindakoak:

| | FISKALIZATUTAKO EKITALDIA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ORDUEN BILAKAERA | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 |
| EAEren Administrazio Orokorra ..... | 5.308 | 7.986 | 5.329 | 5.271 | 6.725 | 10.545(*) | 5.752 |
| EAEren Erakundeen Administr. (2). | - | - | - | 2.950 | 4.190 | 2.662 | 1.900 (1) |
| Osakidetza ................................... | 3.910 | 2.364 | 858 | - | - | - | |
| Arabako Foru Aldundia ................ | 1.936 | 3.333 | 4.020 | 4.224 | 4.681 | 4.366 | 3.750 |
| Bizkaiko Foru Aldundia ................ | 3.630 | 5.019 | 4.793 | 5.067 | 4.892 | 4.969 | 4.245 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia ........... | 3.402 | 3.557 | 3.331 | 3.563 | 3.966 | 4.479 | 3.898 |
| Udalen Diagnostikoa .................... | 3.511 | 2.548 | 1.055 | 1.167 | 1.345 | 1.481 | 1.500 (1) |
| Euskal Herriko Unibertsitatea........ | 851 | 2.333 | 1.326 | 2.935 | - | 2.080 | - |

(1) Aurrekontu egindako orduak.

(2) 2003ko ekitaldiari dagokionez, lanaren zabalak Erakunde Autonomoak barne hartzen ditu; 2004ak, gainera, sozietate publikoak eta enteak, fundazioak eta Osakidetza besarkatzen ditu.

(*) Txostenari txertatutako beste lan batzuk jasotzen ditu

Lan hauetan egindako orduen gora-behera, ekitaldi bakoitzeko Lanerako Planean adostutako berariazko hainbat lan jakin txostenean barne hartu izanarekin dago lotua eta gainerakoan, egonkortasun hildoari eusten dio.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

# I. INTRODUCCIÓN

La Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, dispone que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas controlará la actividad económica de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siendo la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, la que determina la configuración básica del mismo, estableciendo que será mediante una Ley del Parlamento Vasco la que creará y regulará la composición, organización y procedimiento de sus funciones, fiscalizadora y jurisdiccional.

Partiendo de estas premisas, se aprobó la Ley 1/1988 de 5 de febrero por la que se crea el Herri Kontuen Euskal Epaitegia/ Tribunal Vasco de Cuentas Públicas como órgano propio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dependiente directamente del Parlamento Vasco. En el ámbito de sus competencias tiene el carácter de órgano supremo fiscalizador de las actividades económico-financieras y contables del sector público vasco y ejerce sus funciones en la Comunidad Autónoma por delegación del Parlamento Vasco.

